



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Meñakako Udala

2018ko ekitaldiko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Udal Zergaren Errolda

2018ko maiatzaren 7ko Alkateak emandako Dekretuaren bidez ondorengo ebazpena hartu da:

Lehenengoa: Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Udal Zergaren Errolda onartzea, 2018. ekitaldiari dagokiona.

Bigarrena: Jendaurrean azaltzea hamabost egun balioduneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan, epe horretan interesdunek azter dezaten. Zergadunen errolda jendaurrean jarriz, errolda osatzen duten kitapen guztiak jakinarazitatzat jotzen dira. Erroldetan sartzeko egintzen aurka edo bertan dauden datu aldaketen aurka, bai eta hala jakinarazitako likidazioen aurka ere, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, ordaintzeko borondatezko aldiaren edo hilabeteko epean hura amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena: Ondoko zergaldia zehaztea:

— Borondatezko epea: 2018ko maiatzaren 21etik uztailak 21era arte, biak barne. Ordainketa helbideratuta duten zergadunei 2018ko ekainaren 1ean kargatuko zaie banku-kontuan.

Ordainketa Kutxabank-eko edozein bulegotan jendearentzako ordutegiaren barruan egin daiteke, beti ere dagokion inprimaki sorta aurkeztuz. Inprimaki sorta ez eskuratzeko ez du esan nahi ordaintzetik aske geratzen denik. Zergadunek, horrelakoetan, udal bulegoetan galdetu beharko dute zergatik ez dituzten orriak jaso eta zerga nola ordaindu behar duten.

— Betearazpen aldia: Zerga hau guztira ordaindu gabe borondatezko epea amaitu ondoren, ordaindu gabeko zorra premia- bidez kobratzeko epea irekiko da automatikoki

Meñakan, 2017ko maiatzaren 7an.— Alkatea, Aitor Ugarte Torre